

GOBIERNO DE NAVARRA
PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR
ECONOMIA Y HACIENDA
RELACIONES INSTITUCIONALES Y PORTAVOZ DEL GOBIERNO
ADMINISTRACION LOCAL
EDUCACION
SALUD
DESARROLLO RURAL Y MEDIO AMBIENTE
ASUNTOS SOCIALES FAMILIA JUVENTUD Y DEPORTE
CULTURA Y TURISMO
OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y COMUNICACIONES
VIVIENDA Y ORDENACION DEL TERRITORIO
INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO
SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak tokiko jaietan genero-berdintasunerako kanpaina sustatu du

Horren bidez, familia-bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeari buruz sentsibilizatu eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitu nahi da

Martes, 17 de mayo de 2011

Nafarroako Berdintasun Institutuak, zazpigarren urtez jarraian,

["Y en fiestas, ¿qué? Ayuntamientos por la igualdad en fiestas"](#)

izeneko kanpaina jarri du abian, Foru Komunitateko herrietako jaietan genero-berdintasunari buruz sentsibilizatzeko.

Kanpaina horri laurogei toki entitate atxiki zaizkio.

Kanpainaren helburua bikoitza da: batetik, herritarrak kontzientziatu nahi dira gizonezkoek eta emakumezkoek etxeo eginkizunetan eta familia-

betebeharretan erantzukizunez jardun behar dutela; bestetik, jai giroan emakumeen aurkako indarkeria prebenitu nahi da. Lehenengo helburua kanpainaren lehen bidez laburtzen da: *"Compartimos el trabajo, los cuidados y el ocio"*; eta bigarrena, honen bidez: *"Vive las fiestas desde el respeto, el No sigue siendo No"*.

Kanpaina honekin, Nafarroako Gobernuak genero-berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa agertu nahi du jaiak antolatu eta ospatzean, eta udalek konpromiso horretan parte hartzea nahi du.

Nafarroako Berdintasun Institutuaren analisisian, jaien lau alderdik emakumeen dibertsio-aukeretan modu erabakigarrian eragiten dute: 1) Gizonek eta emakumeek hiri-espazioak ez dituzte berdin okupatzen, batez ere inguru ez-seguruetan, gaizki argizatutako kaleetan eta emakumeentzako etsaitasunezko giroetan; 2) Jaiaren baldintzek, batez ere alkohola edateak, erasoei eta sexu-abusuei mesede egin ahal diete; 3) Gizonezkoen erreserbatutako jarduerak, askotan modu inplizituan, eta 4) Etxeko eginkizunak eta familia-betebeharrak modu desberdinean



Kanpainaren irudia

banatzea.

Ildo horretatik, Nafarroako Berdintasun Institutuak kanpainari atxikitako toki entitateei eskatu die jaien programetan eta jaietako beste euskarri batzuetan (paineluak, kartelak, abanikoak, amantalak, eta abar) kanpainako mezuak gehitu ditzatela.

Kanpainaren diseinu grafikoa Mireya Martin Larumbe Arte Ederretako lizentziatuak eta Iruñeko Artista Gazteen 2009ko Lehiaketaren irabazleak egin du. Artista horrek Nafarroako Gobernuaren Arte Plastikoen eta Argazkigintzaren 2010eko Sorkuntza beka lortu zuen, baita Artista Gazteen 2011ko profesionalizaziorako laguntza ere, Nafarroako Gazteria Institutuaren eskutik.

Udalek kanpaina honi atxikitzeko konpromisoa

[aurretik aipatutako web orrian](#) edo 012 Infonavarra telefono-zenbakian formalizatu